



## ARRASATEKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOA REGLAMENTO ORGÁNICO MUNICIPAL

**Onarpena:** Udalbatzak 1998/10/30ean

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub>, 1999/05/17an ([pdf](#))

**Aprobación:** Pleno de 30/10/1998

**Publicación:** BOG de 17/05/1999 ([pdf](#))

**Lehen aldaketa:** Udalbatzak 1999/09/30ean

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub> 2000/08/16 ([pdf](#))

**Primera modificación:** Pleno 30/09/1999

**Publicación:** BOG de 16/08/2000 ([pdf](#))

**Bigarren aldaketa:** Udalbatzak 2001/11/22an

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub> 2002/01/28 ([pdf](#))

**Segunda modificación:** Pleno 22/11/2001

**Publicación:** BOG de 28/01/2002 ([pdf](#))

**Hirugarren aldaketa:** Udalbatzak 2008/09/18an

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub> 2008/09/30 ([pdf](#))

**Tercera modificación:** Pleno 18/09/2008

**Publicación:** BOG de 30/09/2008 ([pdf](#))

**Laugarren aldaketa:** Udalbatzak 2009/10/01ean

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub> 2009/11/20 ([pdf](#))

**Cuarta modificación:** Pleno 1/10/2009

**Publicación:** BOG de 20/11/2009 ([pdf](#))

**Bosgarren aldaketa:** EAEANren 202/2010 epaia

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub> 2010/07/27 ([pdf](#))

**Quinta modificación:** Sentencia 202/2010 TSJPV

**Publicación:** BOG de 27/07/2010 ([pdf](#))

**Seigarren aldaketa:** Epaitegi Gorenaren epaia

**Argitalpena:** GAO<sub>n</sub> 2012/10/02 ([pdf](#))

**Sexta modificación:** Sentencia Tribunal Supremo

**Publicación:** BOG de 2/10/2012 ([pdf](#))

### TESTU KONTOLIDATUA TEXTO CONSOLIDADO

Honako testu kontsolidatu honek Araudiaren testua jasotzen du, ondorengo aldaketak barne, eta horren helburua da irakurtzeko eta ulergarria izateko erraztasunak ematea. Hala ere, jakinarazten da balio legala duen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa dela (era berean, aldaketa ofizialak ere aipatu aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira).

El presente Texto Consolidado presenta, en un único redactado, la Normativa con sus posteriores modificaciones para facilitar su lectura y comprensión. No obstante, se advierte que el único texto con valor legal es el publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (asimismo, las modificaciones oficiales son las publicadas en el citado Boletín Oficial).

AURKIBIDEA	INDICE
Hitzaurrea..... 3	Preámbulo ..... 3
Atariko titulua ..... 3	Título preliminar ..... 3
Lehen Titulua: UDAL ANTOLAMENDUA..... 4	Título Primero: ORGANIZACIÓN MUNICIPAL..... 4
Lehen kapitulua. ZINEGOTZIEI BURUZ..... 4	Capítulo Primero. DE LOS CONCEJALES ..... 4
II. Atala. UDAL TALDEAK ..... 10	Capítulo II. GRUPOS MUNICIPALES..... 10
III. Atala. INTERESEN ERREGISTROA ..... 15	Capítulo III. REGISTRO DE INTERESES ..... 15
Bigarren Titulua: OINARRIZKO ORGANOK. OSAERA ETA AGINPIDEAK ..... 17	Título Segundo: ÓRGANOS BÁSICOS. COMPOSICIÓN Y ATRIBUCIONES..... 17



I. Kapitularia. ALKATEARI BURUZ ..... 17	Capítulo I. DEL ALCALDE ..... 17
II. Kapitularia. ALKATEORDEEI BURUZ ..... 20	Capítulo II. DE LOS TENIENTES DE ALCALDE ..... 20
III. Kapitularia. UDALBATZARRAZ..... 22	Capítulo III. DEL PLENO..... 22
IV. Kapitularia. GOBERNU BATZORDEARI BURUZ ..... 23	Capítulo IV. DE LA COMISIÓN DE GOBIERNO..... 23
Hirugarren Titulua: UDALAREN ORGANO OSAGARRIAK..... 24	Título Tercero: ÓRGANOS COMPLEMENTARIOS MUNICIPALES24
I. Kapitularia. INFORMAZIO BATZORDEEI BURUZ ..... 24	Capítulo I. DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS ..... 24
II. Kapitularia. BOZERAMALEEN BATZORDEAZ..... 26	Capítulo II. DE LA JUNTA DE PORTAVOCES ..... 26
III. Kapitularia: ALKATEAREN ORDEZKARI PERTSONALEI BURUZ (AUZO ALKATEAK) ETA BARRUTIKO UDAL BATZORDEEI BURUZ. .... 28	Capítulo III: DE LOS REPRESENTANTES PERSONALES DEL ALCALDE (ALCALDES DE BARRIO) Y DE LAS JUNTAS MUNICIPALES DE DISTRITO. .... 28
Laugarren Titulua: UDAL ORGANOEN FUNTZIONAMENDU ERREGIMENARI BURUZ ..... 31	Título Cuarto: DEL RÉGIMEN DE FUNCIONAMIENTO DE LOS ÓRGANOS MUNICIPALES ..... 31
I. Kapitularia. UDALBATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA31	Capítulo I. FUNCIONAMIENTO DEL PLENO. .... 31
1. atala. BILKUREI BURUZ ..... 31	Sección 1ª. DE LAS SESIONES..... 31
2. atala. DEIALDIARI ETA GAI ZERRENDARI BURUZ..... 34	Sección 2ª- DE LA CONVOCATORIA Y ORDEN DEL DÍA... 34
3. atala. EZTABAIDEI BURUZ. .... 35	Sección 3ª. DE LOS DEBATES..... 35
4. atala. BOTAZIOEI BURUZ ..... 38	Sección 4ª- DE LAS VOTACIONES ..... 38
II. Kapitularia: GOBERNU BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA. .... 41	Capítulo II: FUNCIONAMIENTO DE LA COMISIÓN DE GOBIERNO. .... 41
III. Kapitularia: INFORMAZIO BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUA. .... 43	Capítulo III: FUNCIONAMIENTO DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS..... 43
IV. Kapitularia: BARRUTIKO UDAL BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUA. .... 44	Capítulo IV: FUNCIONAMIENTO DE LAS JUNTAS MUNICIPALES DE DISTRITO. .... 44
V. Kapitularia: DELEGATUTAKO AGINPIDEAK ERABILTZEKO ARAUBIDE OROKORRA. .... 44	Capítulo V: RÉGIMEN GENERAL DEL EJERCICIO DE ATRIBUCIONES DELEGADAS..... 44
VI. Kapitularia: FEDE PUBLIKOARI BURUZ..... 46	Capítulo VI: DE LA FÉ PÚBLICA..... 46
Bosgarren Titulua: INFORMAZIOA ETA HERRITARREK PARTE HARTZEA..... 47	Título Quinto: INFORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA 47
Xedapen Derogatzaila ..... 53	Disposición Derogatoria ..... 53
Bukaerako Xedapena..... 53	Disposición Final ..... 53



## UDALAREN ARAUDI ORGANIKOA

### Hitzaurrea

Toki Udalbatzek bere burua antolatzeko gaitasunaren indarrez eta hori errekonozituz, izan ere halaxe aitortzen zaio Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. artikuluan, Udal Araudi Organikoa eratzeko akordio hau hartu du Arrasateko Udalak.

### Atariko titulua

#### 1. artikulua.

Helburu hauxe du Araudi honek, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a), 5 A), 20.1 c), 24, 62., bigarren paragrafoa, 69.2 eta 72. artikuluetan ezarritakoaren babesean, batetik, Arrasateko Udalaren antolamendu eta funtzionamendu araubidea arautzea eta, bestetik, legeriak Udalbatzako kideei ematen dizkien eskubideak eta betebeharrak artikulatzea eta herritarrek eta herri elkarteek informatzeko eta parte hartzeko duten eskubideak artikulatzea.

#### 2. artikulua.

1. Lehentasunez aplikatuko dira Araudi honetan agintzen direnak, baina ez dira aplikatuko maila goragoko arauekin bat ez datozen kasuetan, nahitaez bete behar direnean arauok.

2. Araudi honek aurrirakusten ez duen guztian, Autonomia Erkidegoko edo Estatuko toki jaurbidearen legeriak arautuko du, haien arteko eskumenen konstituzio banaketaren arabera.

#### 3. artikulua.

Udalari dagozkio udal gobernua eta udal adminis-

## REGLAMENTO ORGÁNICO MUNICIPAL

### Preámbulo

En virtud y reconocimiento de la capacidad de autoorganización de las Corporaciones Locales reconocida por el artículo 20 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el Ayuntamiento de Arrasate adopta el presente acuerdo constitutivo de su Reglamento Orgánico Municipal.

### Título preliminar

#### Artículo 1.

El presente Reglamento tiene por objeto regular, al amparo de lo establecido en los artículos 4.1.a), 5 A), 20.1.c), 24, 62, párrafo segundo, 69.2 y 72 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el régimen organizativo y de funcionamiento del Ayuntamiento de Arrasate, así como articular los derechos y deberes que la legislación atribuye a los miembros de la Corporación y los derechos de información y participación de los vecinos y entidades ciudadanas del Municipio.

#### Artículo 2.

1. Los preceptos del presente Reglamento se aplicarán de forma preferente, salvo en los casos en que exista contradicción con normas de superior rango que sean de obligada observancia.

2.- En lo no previsto por este Reglamento regirá la legislación de régimen local de la Comunidad Autónoma o la del Estado, según la distribución constitucional de competencias entre ambos.

#### Artículo 3.

El gobierno y la administración municipal corres-



trazioa. Indarrean dagoen hauteskunde legeriaren terminoetan hautatutako alkateak eta zinegotziak osatzen dute udal hori.

#### 4. artikulua.

1. Hauek dira udaleko oinarrizko organoak:

Alkatea.

Alkateordeak.

Udalbatzarra.

Gobernu Batzordea

2. Halaber, organo osagarri hauek daude udalean:

Informazio Batzordeak.

Bozeramaleen Batzordea.

Alkatearen ordezkari pertsonalak (auzo alkateak) eta barrutiko udal batzordeak

#### 5. artikulua.

Hauteskunde legeriak arautzen du Udalaren eraketa.

### Lehen Titulua UDAL ANTOLAMENDUA

#### Lehen kapitulua ZINEGOTZIEI BURUZ

#### 6. artikulua.

Hauteskunde Legeria Orokorrean arautzen dira, Udalean zenbat zinegotzi egon, haiek hautatzeko modua, zenbat iraungo duten agintean eta hautaezintasun edo bateraezintasun kasuak zeintzuk diren.

penden al Ayuntamiento, integrado por el Alcalde y los Concejales elegidos en los términos de la Legislación electoral vigente.

#### Artículo 4.

1. Son órganos básicos del Ayuntamiento:

El Alcalde.

Los Tenientes de Alcalde.

El Pleno.

La Comisión de Gobierno

2. Existen asimismo en este Ayuntamiento los siguientes órganos complementarios:

Las Comisiones Informativas.

La Junta de Portavoces.

Los Representantes Personales del Alcalde (Alcaldesde Barrio) y las Juntas Municipales de Distrito.

#### Artículo 5.

La constitución del Ayuntamiento se rige por la legislación electoral.

### Título Primero ORGANIZACIÓN MUNICIPAL

#### Capítulo Primero. DE LOS CONCEJALES

#### Artículo 6.

La determinación del número de Concejales del Ayuntamiento, el procedimiento para su elección, la duración de su mandato y los supuestos de inelegibilidad e incompatibilidad son los regulados en la legislación electoral general.



## I Atala ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 7. artikulua.

Zinegotzien eskubideak eta betebeharrak dira 7/1985 Legearen V. Tituluko V. kapituluan aipatzen direnak, eta han aipatzen diren estatuko xedapenek ezartzen dituztenak, garatzeko eta ezartzeko, eta toki jaurbideari buruz Autonomia Erki-degoaren legeriak ezartzen dituenak. Legeria horretan eta Araudi honetako hurrengo artikuluetan xedatzen denak arautuko du horien erabilera, beti ere kontra egiten ez badiote legeria horri.

### 8. artikulua.

1. Zinegotziek eskubidea eta betebeharra dute Udalbatzaren eta kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joateko, hitzez eta botoz.

2. Herritik kanpo zortzi egunetik gora egonez gero, idatziz adierazi behar zaio alkateari, zinegotziak berak edo talde politikoaren bozeramalearen bidez, eta halakoetan egonaldiak zenbat iraungo duen zehaztu behar da.

### 9. artikulua.

1.- Zinegotziek eskubidea izango dute, Udalaren aurrekontuaren kontura, dagozkion ordainsariak edo kalte-ordainak jasotzeko, toki jaurbidearen legerian, Araudi honetan eta udal aurrekontuan ezarritako irizpide orokorren arabera.

2.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, zinegotziek eskubidea izango dute ordainsariak jasotzeko eta alta emateko Gizarte Segurantzian, udal erantzukizunak erabateko dedikazioan betetzen badituzte. Zinegotzi bati erabateko dedikazioa aitortuz gero, lehentasunez udal zereginetara dedikatuko da, beste zere-

## Sección Primera DERECHOS Y DEBERES

### Artículo 7.

Son derechos y deberes de los Concejales los enumerados en el Capítulo V del Título V de la Ley 7/1985, de 2 de abril, y los que en su desarrollo y aplicación establezcan las disposiciones estatales allí mencionadas y la legislación de la Comunidad Autónoma sobre régimen local. Su ejercicio se regirá por lo dispuesto en dicha legislación y en los artículos siguientes de este Reglamento en cuanto no se opongan a la misma.

### Artículo 8.

1. Los Concejales tienen el derecho y el deber de asistir, con voz y voto, a las sesiones del Ayuntamiento Pleno y a las de aquellos otros órganos colegiados de que formen parte.

2. Las ausencias del término municipal de duración superior a ocho días, deberán ser comunicadas al Alcalde por escrito, bien personalmente o a través del portavoz del grupo político, concretándose en todo caso la duración previsible de la misma.

### Artículo 9.

1.- Los Concejales tendrán derecho a percibir, con cargo al Presupuesto del Ayuntamiento, las retribuciones o indemnizaciones que correspondan, según los criterios generales establecidos en la legislación de régimen local, en este Reglamento y en el Presupuesto municipal.

2.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 75.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, tendrán derecho a percibir retribuciones y a ser dados de alta en la Seguridad Social los Concejales que desarrollen sus responsabilidades municipales en régimen de dedicación exclusiva. El reconocimiento de la dedicación exclusiva a un Concejale exigirá la dedi-



gin marjinal batzuen kalterik gabe, baina edozein modutan ere ezingo dute zeregin horiek murriztu-araziko haren dedikazioa udalean. Halako lanen truke ordainsaririk jasoz gero, bateragarritasun dedikazioa behar izango du, Udalbatzak osoko bilkuran onartua.

3.- Udalbatzak, alkateak proposaturik, aurrekontuan hartarako jasota dagoen kontsignazio globalean, Udalbatzaren kargudunen zerrenda erabakiko du; kargu hori betetzeak erabateko dedikazioa sor diezaioke kargudunari eta, hortaz, ordaina eta horietako bakoitzari dagozkionak jasotzeko esku-bidea, erantzukizun mailaren arabera. Horietako karguetako baterako zinegotzi bat izendatuz gero, erabateko dedikazioaren erregimena aplikatuko zaio, baldin eta berariaz onartzen badu zinegotzi horrek, eta hala izanez gero, Udalbatzarrari adieraziko zaio hurrengo ohiko bilkuran.

4.- Udalbatzako kide guztiek, erabateko dedikazio erregimenean dauden karguak betetzen dituztenak barne, eskubidea izango dute kalte-ordainak jasotzeko, kargua betetzeagatik sortu diren gastuen truke, benetakoak direnean eta agiriz justifikatu eta gero, Administrazio Publikoetan aplikatzen diren arauen arabera eta ildo horretan Udalbatzarrak onartzen dituen arauen arabera.

5.- Erabateko dedikazioa ez duten udalbatzarkideek bakarrik jasoko dituzte ordainsariak, udalaren organo kolegiatu batekoa izan eta haietako bilkuretara joatearen truke, Udalbatzarrak jartzen duen kopuruan. Edozelan ere, denek jaso ahal izango dute halako indemnizazioa, aurrekontua eta finantzaketa propioa izan eta Udalaren menpeko erakundeetako organo zuzentzaileak direnean, udalaren kapitala edo kontrola duten Enpresen Administrazio Kontseiluak direnean edo pertsonak hautatzeko probetako Epaimahaiak direnean.

6.- Artikulu honetan aipatzen diren kontzeptuei dagozkien aurrekontu kontsignazioek ezin izango

cación preferente del mismo a las tareas municipales, sin perjuicio de otras ocupaciones marginales que, en cualquier caso, no podrán causar detrimento a su dedicación al Ayuntamiento. En el caso de que tales ocupaciones sean remuneradas se requerirá una declaración formal de compatibilidad por parte del Pleno municipal.

3.- El Pleno, a propuesta del Alcalde, determinará, dentro de la consignación global contenida a tal fin en el Presupuesto, la relación de cargos de la Corporación cuyo desempeño podrá conllevar la dedicación exclusiva y, por tanto, el derecho a retribución, así como las que correspondan a cada uno de ellos en atención a su grado de responsabilidad. El nombramiento de un Concejal para uno de estos cargos sólo supondrá la aplicación del régimen de dedicación exclusiva si es aceptado expresamente por aquél, en cuyo caso esta circunstancia será comunicada al Pleno en la siguiente sesión ordinaria.

4.- Todos los miembros de la Corporación, incluidos los que desempeñen cargos en régimen de dedicación exclusiva, tendrán derecho a percibir indemnizaciones por los gastos ocasionados por el ejercicio del cargo, cuando sean efectivos y previa justificación documental, según las normas de aplicación general en las Administraciones Públicas y las que en este sentido apruebe el Pleno municipal.

5.- Sólo los miembros de la Corporación que no tengan dedicación exclusiva percibirán asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados municipales de que formen parte, en la cuantía que señale el Pleno de la misma. No obstante, todos podrán percibir esta clase de indemnización cuando se trate de órganos rectores de organismos dependientes del Ayuntamiento que dispongan de Presupuesto y financiación propia, de Consejos de Administración de Empresas con capital o control municipal o de Tribunales de pruebas para selección de personal.

6.- Las consignaciones presupuestarias correspondientes a los conceptos mencionados en este



dute gainditu Estatuaren legeriak izaera orokorrean ezartzen dituen topeak.

Ezarririkako kopuruak gordinak izango dira, eta kopuru likidoak hilean behin ordainduko dira, baina udalak diru kopuruak aurreratu ahal izango ditu, eta justifikatu egin behar dira, gastuengatik kalte-ordainik izanez gero.

### 10. artikulua.

1. Zinegotzi guztiek dute eskubidea, alkatearen edo Gobernu Batzordearen bidez, hauek guztiak lortzeko, udal zerbitzuen esku egonik haien egitekoa betetzeko behar diren aurrekariak, datuak eta informazio guztiak.

2. Eskubide hori, guztiz edo zati baten, Legean ezarririkako kasuetan bakarrik mugatu ahal izango da, eta, besteak beste, kasu hauetan:

a) Agiri edo aurrekariaren berri jakin eta horiek zabalduz gero, urratu badaiteke ohorearen, pertsona eta familiaren intimitatearen eta pertsonen irudiararen beraren zuzenbide konstituzionala.

b) Herritarren segurtasunari buruzko gaiak direnean, haien publizitatea negatiboa denean segurtasun horretarako.

c) Sekretu ofizialei buruz apirilaren 5eko 9/1968 Legearen terminoetan, urriaren 7ko 48/1978 Legeak aldatua, sailkatutako materialak izanez gero.

d) Estatistika sekretuak babestutako materialak direnean edo informatika bankuetara sartzea mugatzen duen legeriak babestutako eremuan eragiten duten materialak direnean.

e) Prozesu judizial penal baten dauden aurrekariak daudenean, sumarioko sekretupean dauden bitartean.

3. Informazioa jasotzeko eskaera emantzat joko

artículo no podrán superar los máximos que se fijan con carácter general por la legislación del Estado.

Las cantidades establecidas se entenderán brutas, y las cantidades líquidas correspondientes se pagarán una vez al mes, sin perjuicio de que el Ayuntamiento pueda adelantar cantidades a justificar en el caso de las indemnizaciones por gastos.

### Artículo 10.

1. Todos los Concejales tienen derecho a obtener del Alcalde y de la Comisión de Gobierno el acceso a todos los antecedentes, datos e informaciones que, obrando en poder de los servicios municipales, resulten precisos para el desarrollo de su función.

2. Este derecho sólo podrá ser limitado, total o parcialmente, en los casos establecidos en la Ley, y, entre otros, en los siguientes:

a) Cuando el conocimiento o difusión de los documentos o antecedentes pueda vulnerar el derecho constitucional al honor, a la intimidad personal o familiar y a la propia imagen de las personas.

b) Si se trata de materias relativas a la seguridad ciudadana, cuya publicidad pudiera incidir negativamente en la misma.

c) Si se trata de materias clasificadas en los términos de la Ley 9/1968, de 5 de abril, modificada por la Ley 48/1978, de 7 de octubre, sobre secretos oficiales.

d) En caso de tratarse de materias amparadas por secreto estadístico o que incidan en el ámbito protegido por la legislación que limita el acceso a los bancos de informáticos.

e) Cuando se trate de antecedentes que se encuentren incorporados a un proceso judicial penal, mientras permanezcan bajo secreto sumarial.

3. La petición de acceso a las informaciones se



da isiltasun administratiboaz, onartzen ez den erabakia edo akordioa ematen ez badu alkateak edo Gobernu Batzordeak bost eguneko epean, eskatzen den egunetik kontatzen hasita.

4. Edozelan ere, uko egiten bazaio informazio baten dokumentazioa jasotzeari, erabaki edo akordioen zergatia azalduz egin behar da.

#### 11. artikulua.

Aurreko artikulua 1. zenbakian xedatutakoa gorabehera, udalaren zerbitzu administratiboak eta funtzionarioak beharturik daude informazioa ematera, zinegotziak baimena duela kreditatu beharrik gabe, kasu hauetan:

- a) Gestio delegazioak edo erantzukizunak daukaten zinegotziek jaso nahi dutenean horiei buruzko informazioa.
- b) Osatzen dituzten organo kolegiatuek aztertu behar dituzten gaiak dagokien informazioa eta dokumentazioa, eta edozein udal organo hartutako erabaki edo akordioak jaso nahi dituztenean edozein zinegotzik.
- c) Herritarrentzat libre dagoen udal informazioa edo dokumentazioa jaso nahi dutenean zinegotziek.

#### 12. artikulua.

Espedienteak, liburua eta dokumentazioa oro har kontsultatu eta aztertzeko, hona hemen arau hauek:

- a) Espedienteak edo dokumentuen aurrekariak agiritegi orokorrean edo agiriak dauden lekuan kontsultatu ahal izango dira, dokumentuak edo haien kopia bat entregatuz interesa agertu duen zinegotziari, zinegotzientzat diren bulegoetan edo bilera getan aztertu ahal izan ditzan. Kopiak ha-

entenderá concedida por silencio administrativo en caso de que el Alcalde o la Comisión de Gobierno no dicten resolución o acuerdo denegatorio en el término de cinco días, a contar desde la fecha de la solicitud.

4. En todo caso la denegación del acceso a la documentación informativa habrá de hacerse a través de resolución o acuerdo motivado

#### Artículo 11.

No obstante lo dispuesto en el número 1 del artículo anterior, los servicios administrativos municipales o los funcionarios correspondientes estarán obligados a facilitar la información sin necesidad de que el Concejal acredite estar autorizado en los siguientes casos:

- a) Cuando se trate del acceso de los Concejales que ostenten delegaciones o responsabilidades de gestión a la información propia de las mismas.
- b) Cuando se trate del acceso de cualquier Concejal a la información y documentación correspondiente a los asuntos que hayan de ser tratados por los órganos colegiados de que formen parte, así como a las resoluciones o acuerdos adoptados por cualquier órgano municipal.
- c) Cuando se trate del acceso de los Concejales a la información o documentación del Ayuntamiento que sea de libre acceso para los ciudadanos.

#### Artículo 12.

La consulta y examen de los expedientes, libros y documentación en general, se regirá por las siguientes normas:

- a) La consulta general de cualquier expediente o antecedentes documentales podrá realizarse bien en el archivo general o en la dependencia donde se encuentre, bien mediante la entrega de los mismos o de copia al Concejal interesado para que pueda examinarlos en el despacho o salas re-





lakoetan emango dira, zinegotziek informazioa jasotzeko libre dutenean eta alkateak edo Gobernu Batzordeak berariaz baimena ematen duenean.

b) Inoiz ere ezingo dira atera espedienteak, liburuak edo dokumentazioa udaletxetik edo dagozkion udal bulegoetatik.

c) Agiritegian edo idazkaritza orokorrean kontsultatu behar dira akta liburuak eta erabaki liburuak.

d) Deialdia egin eta gero agerian dauden lekuan bakarrik aztertu ahal izango dira bilkuran aztertu diren espedienteak.

2. Aurreko zenbakiko a) atalean aurrikusitako moduan entregatuz gero, eta kontrol administratiboa egiteko, hartu izanaren agiria sinatu behar du interesatuak, eta obligazioa izango du espediente edo agiria itzultzeko, gehienez ere 48 orduan, edo lehenago, aipatutako espediente tramitzeko beharren arabera.

3. Zinegotziek, batetik, isilpean gorde behar dute informazioa, haien egitekoa gauzatu ahal izateko ematen zaizkien informazioei dagokienez, oraindik hartzeke dauden erabakietarako aurrekari moduan dauden erabakietan bereziki eta, bestetik, aztertu dezaten ematen zaizen dokumentazioa, jatorrizkoa edo kopia, erreproduzitzea galarazi behar dute.

### 13. artikulua.

Zinegotzi guztiek gutunontzi bat izango dute udaletxean, barruko gutuneria ofiziala eta kanpotik datorren gutuneria jasotzeko.

servadas a los Concejales. El libramiento de copias se limitará a los casos citados de acceso libre de los Concejales a la información y a los casos en que ello sea expresamente autorizado por el Alcalde o la Comisión de Gobierno.

b) En ningún caso los expedientes, libros o documentación podrán salir de la Casa Consistorial o de las correspondientes dependencias u oficinas municipales.

c) La consulta de los libros de actas y los libros de resoluciones deberá efectuarse en el archivo o en la Secretaría General.

d) El examen de los expedientes sometidos a sesión podrá hacerse únicamente en el lugar en que se encuentren de manifiesto a partir de la convocatoria.

2. En el supuesto de entrega previsto en el apartado a) del número anterior, y a efectos del oportuno control administrativo, el interesado deberá firmar un acuse de recibo y tendrá la obligación de devolver el expediente o documentación, en un término máximo de 48 horas, o antes, en función de las necesidades del trámite del expediente en cuestión.

3. Los Concejales tienen el deber de guardar reserva en relación con las informaciones que se les faciliten para hacer posible el desarrollo de su función, singularmente de las que han de servir de antecedente para decisiones que aún se encuentren pendientes de adopción, así como de evitar la reproducción de la documentación que pueda serles facilitada, en original o copia, para su estudio.

### Artículo 13.

Todos los Concejales dispondrán en la Casa Consistorial de un buzón para la correspondencia oficial interior y la de procedencia externa.



## II. Atala. UDAL TALDEAK

### 14. artikulua.

1. Zinegotziek, udalbatzan jarduteko, taldeak osatuko dituzte; Udalbatzan jarlekuak lortu dituzten talde politikoak, federazioak, koalizioak edo taldeak izango dira horiek.

2. Hauteskunde zerrenda berekoak izan eta hautatu dituzten zinegotziek ezin izango dute osatu talde berezirik; baina osatzerik izango dute talderen bat, hauteskundera aurkeztean legez eraturako alderdi politikoek osatzen badute zerrenda hori.

3. Zinegotzi bakarra lortu duen zerrendak eskubidea izango du udalbatzan jarduteko, talde moduan har dezaten.

4. Zinegotziak ezin dira aldi berean bi taldekoak izan.

### 15. artikulua.

Aukeratu izan eta hauteskunde erakundea eratzen duen udal taldean sartzen ez diren edota jatorrizko taldea uzten duten zinegotziak ez atxikitzat joko dira, hauteskunde koalizio moduan aurkeztutako kandidaturak izan ezik, koalizioa osatzen duten alderdietako batek uztea erabakitzen duenean.

Hasieran osatu duten taldeak kanporatutako zinegotziek talde mistoa osatuko dute automatikoki.

Epai edo ebazpen judizial batek etendako udal taldean dauden zinegotzien kasuan aipatu etendura neurria kenduko balitz une horretatik aurrera aurreko egoera berrezarriko litzateke.

## Capítulo II. GRUPOS MUNICIPALES

### Artículo 14.

1. Los Concejales, a efectos de su actuación corporativa, se constituirán en grupos, que se corresponderán con los partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones que hayan obtenido puestos en la Corporación.

2. No podrán constituir grupo separado Concejales que hayan resultado electos perteneciendo a una misma lista electoral; salvo que ésta estuviera integrada por partidos políticos legalmente constituidos al tiempo de concurrir a las elecciones.

3. La lista que sólo haya conseguido un Concejál tendrá derecho a que a éste se le considere, a efectos corporativos, como grupo.

4. Ningún Concejál puede pertenecer simultáneamente a más de un grupo.

### Artículo 15.

Los concejales que no se integren en el grupo municipal que constituya la formación electoral por la que fueron elegidos o que abandonen su grupo de procedencia, tendrán la consideración de no adscritos, salvo en el caso de candidaturas presentadas como coalición electoral, cuando alguno de los partidos que la integren decida abandonarla.

Los concejales que sean expulsados por el grupo en el que inicialmente se hubieron integrado pasarán automáticamente a integrarse en el grupo mixto.

En el supuesto de los Concejales integrados en un grupo municipal que sea suspendido por sentencia o resolución judicial y si la medida de suspensión fuera levantada a partir de ese momento se restablecería la situación anterior.



Ondorio horretarako, Udalbatzaren agintaldian zinegotziak ezingo dira sartu hasiera baten sartu diren taldea ez den beste baten, aipatu talde mistoan izan ezik, hori guztia Araudiaren 14.2 eta 15.1 artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe.

#### 16. artikulua.

1. Udal taldeak eratzeko idatzi bat zuzenduko diote alkateari eta taldeko kide guztiek sinatuko dute idatzi hori. Udalbatzaren idazkaritza orokorrean aurkeztuko dute idatzia, Udala eratu eta hurrengo bost astegunean.

Araudi honetako 14.2 artikulua babesean udal talde beretziak eratzea aukeratu duten alderdi politikoen federazioak, koalizioak edo taldeak Udalbatzako Idazkaritza Nagusian aurkeztu behar dute, aurreko paragrafoan aipatutako epean, Alkateari zuzendutako idatzia, kide guztiek sinaturik; eta jaso behar dute idatzi horretan, talde beretziak eratzeko berariazko borondatea, eta kasu guztietan zerrenda osatzen duten alderdi politikoekin bat etorriko da, eta era berean zeintzuk osatzen duten adieraziko da.

2. Eraketa idatzi horretan bertan agertuko da zein izendatu duten taldeko bozeramale, eta haren ordezkioak ere izendatu ahal izango dira

3. Udal taldeak eratu izanari buruz eta haien kideei eta bozeramaleei buruz, artikulua honetako 1. zenbakian aurrikusitako epea bete eta gero egiten den lehenengo bilkuran, horien guztien berri emango dio alkateak udalbatzarrari.

4. Araudi honetako 15.1 artikuluan jasotzen den udal taldeen osaera aldatzeko, eratzeko jarraitzen den prozedura bera jarraitu behar da.

#### 17. artikulua.

A este efecto, durante el mandato de la Corporación ningún Concejal podrá integrarse en un grupo distinto de aquél en que lo haga inicialmente, salvo en el referido grupo mixto, todo ello sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 14.2 y 15.1 de este Reglamento.”

#### Artículo 16.

1. Los grupos municipales se constituirán mediante escrito dirigido al Alcalde y suscrito por todos sus integrantes, que se presentará en la Secretaría General de la Corporación dentro de cinco días hábiles siguientes a la constitución del Ayuntamiento.

Aquellas federaciones, coaliciones o agrupaciones de partidos políticos que al amparo del artículo 14.2 de este Reglamento hayan optado por la constitución de grupos municipales separados deberán presentar en la Secretaría General de la Corporación, en el plazo previsto en el párrafo anterior, escrito dirigido al Alcalde y suscrito por todos sus integrantes donde deberá recogerse la voluntad expresa de constitución de grupos separados, que en cualquier caso se corresponderán con los partidos políticos que integren la lista, indicando a su vez la composición de los mismos.

2. En el mismo escrito de constitución se hará constar la designación de Portavoz de grupo, pudiendo designarse también suplentes.

3. De la constitución de los grupos municipales y de sus integrantes y portavoces, el Alcalde dará cuenta al Pleno en la primera sesión que se celebre tras cumplirse el plazo previsto en el número 1 de este artículo.

4. Para la modificación de la composición de los grupos municipales errecogida en el artículo 15.1 de este Reglamento se habrá de seguir el mismo procedimiento que para su constitución.

#### Artículo 17.



Udalbatza eratu eta geroago zinegotzi izaera hartzen duten zinegotziak aukeratu zituzten zerrendari dagokion taldean sartu beharko dira edo, bestela, kide ez atxikien kontsiderazioa izango dute. Lehen kasuan bost egun balioduneko epea izango dute, haien karguaz jabetzen diren egunetik kontatzen hasita, dagokien taldean sartu direla egiaztatzeko. Alkateari zuzenduko diote idatzia eta bozeramaleak sinatu behar du idatzia.

Aukeratu zituzten hauteskunde erakundea osatzen duten taldean sartzeko ez badira, kide ez atxikien kontsiderazioa izango dute. Aurreikuspen hori ez da aplikatzeko izango hauteskunde koalizio moduan aurkeztutako kandidaturen kasuan, hura osatzen duten alderdietako batek uztea erabakitzen duenean.

#### 17. bis artikulua

1.- Talde mistoa automatikoki eratuta geratuko da hasieran osatu duten taldeak zinegotziak kanporatzen dituenean. Hori sortzeko emandako gorabeheren berri emango dio alkate-udalburuak Udalbatzarrari, egiten duen lehen bilkuran.

2.- Talde mistoan sartutako zinegotziek independente izaera izango dute bata bestearikiko.

3.- Talde mistoak gainontzeko udal taldeen antzeko eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

4.- Talde mistoa zinegotzi batek baino gehiagok osatuz gero eta lortu ezean akordiorik bozeramalea eta ordezkotza ordena izendatzeko, alkateak izendatu ditzake, eta txandakako sistema bat ezarriko du, kide guztiak aldizka eta berdintasunez esku hartu dezaten.

Talde mistoa osatzen duten zinegotziek, hala gura izanez gero, txandaka erabili ahal izango dute bo-

Los Concejales que adquieran su condición con posterioridad a la sesión constitutiva de la Corporación deberán incorporarse al grupo correspondiente a la lista en que hayan sido elegidos o, de lo contrario, tendrán la consideración de miembros no adscritos. En el primer supuesto dispondrán de un plazo de cinco días hábiles, a contar desde que tomen posesión de su cargo, para acreditar su incorporación al grupo que corresponda mediante escrito dirigido al Alcalde y firmado asimismo por el correspondiente Portavoz.

Si no se produce su integración en el grupo que constituya la formación electoral por la que fueron elegidos, tendrán la consideración de miembros no adscritos. Esta previsión no será de aplicación en el caso de candidaturas presentadas como coalición electoral, cuando alguno de los partidos que la integren decida abandonarla.

#### Artículo 17 bis.

1.- El grupo mixto quedará automáticamente constituido bien con la expulsión de los concejales por el grupo en el que inicialmente se hubieren integrado. De la producción de las citadas circunstancias que motivan su creación se dará cuenta por la Presidencia a la Corporación en la primera sesión que ésta celebre.

2.- Los concejales integrados en el grupo mixto tendrán la consideración de independientes uno respecto de los otros.

3.- El grupo mixto tendrá derechos y obligaciones análogos al resto de grupos municipales.

4.- Si el grupo mixto estuviese constituido por más de un concejal y no consiguiera acuerdo para la designación de Portavoz y orden de suplencia, el Alcalde podrá designarlos, estableciendo un turno rotatorio que permita la intervención periódica e igual de todos sus integrantes.

Los concejales integrantes del grupo mixto podrán, si así lo desean, ejercer por rotación el cargo



zeramale kargua, haiek zehaztutako ordenaren arabera.

Talde mistoko bozeramaleak esku hartuko du taldearen izenean taldeko kide guztien iritzia azaltzeko, nahiz eta iritzi hau edo hauek bat etorri edo ez bere iritziarekin.

5. Talde mistoaren izenean esku hartu ahal izango du/dute udalbatzarreko eztabaidetan kide batek edo hainbatek, eta horrela banatu ahal izango dute haien artean talde bakoitzari dagokion denbora.

6.- Talde mistoa osatzen duen edozein zinegotzik aurkeztu ditzake taldearen izenean Udalean proposamenak, ekimenak eta gainontzeko idatziak.

7.- Talde mistoak lortu ezean akordiorik kideak izendatzeko parte hartzea dagokion Batzorde Informatiboetan eta gaintzeko kide anitzeko organoetan, alkateak ezarriko du zelan banatu zinegotziak batzordeetan eta organoetan, betiere ahalegina eginez berdintasuneko izan dadin parte hartzea.

#### 18. artikulua.

Udalaren antolaketa administratiboaren funtzio aukeren arabera, Udaletxean bulego bat edo lokal bat izango dute udal taldeek, bakoitza bere aldetik bilerak egiteko eta herritarren bisitak jasotzeko. Alkateak edo barne araubideko sailaren ardura duen zinegotziak taldearen esku jarriko du giza eta material baliabideen gutxieneko azpiegitura bat.

Halaber, lokala edo bulegoa erabiltzeko eskubidea erabiliko dute atxikirik gabeko zinegotziek, administrazio antolaketaren funtzio aukeren neurrian eta kopuru aldetik duten garrantzia kontuan izanik.

#### 19. artikulua.

de Portavoz, según el orden que ellos mismos determinen.

El Portavoz del grupo mixto intervendrá como tal para exponer el parecer de todos los miembros del grupo, con independencia de que éste coincida o no con su opinión personal.

5.- En nombre del grupo mixto podrán intervenir en los debates plenarios uno o varios de sus miembros, pudiendo así distribuir entre ellos el tiempo de intervención que corresponde a cada grupo.

6.- Cualquier concejal integrante del grupo mixto podrá en nombre de éste presentar propuestas, iniciativas y demás escritos en el Ayuntamiento.

7.- Si el grupo mixto no lograra acuerdo para la designación de miembros en las Comisiones Informativas y demás órganos colegiados en los que le corresponda participar, el Alcalde establecerá la distribución de sus concejales entre las diversas Comisiones y órganos, procurando siempre la igualdad participativa.

#### Artículo 18.

En la medida de las posibilidades funcionales de la organización administrativa del Ayuntamiento, los diversos grupos municipales dispondrán en la Casa Consistorial de un despacho o local para reunirse de manera independiente y recibir visitas de ciudadanos y el/la Alcalde/sa o el/la Concejal responsable del área de régimen interior pondrá a su disposición una infraestructura mínima de medios personales y materiales.

Asimismo, el derecho de uso de local o despacho se ejercerá por los/as concejales no adscritos/as en la medida de las posibilidades funcionales de la organización administrativa y considerando su importancia numérica.

#### Artículo 19.



Udal taldeek eta atxikirik ez dauden kideek udal lokalak erabili ahal izango dituzte, herriko auzokideen interes kolektiboak, orokorrak edo arlokoak, defenditzeko dauden elkarteekin bilerak edo lan saioak egiteko.

Alkateak edo barne araubideko sailaren ardura duen zinegotziak araudi bat ezarriko du udal lokal horiek erabiltzeko udalbatzako taldeek, kontuan izanik funtzio koordinazioa eta talde horietako bakoitzaren ordezkaritza politikoaren mailekin bat.

Ez da halako bilerarik onartuko, Udalbatzarraren edo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak egin behar direnean.

#### **19. bis artikulua.**

1. Udalbatzarrak, Udalaren urteko Aurrekontuen arabera, diru-kopuru bat esleitu ahal izango die udal taldeei, osagai finko bat eduki behar duena, berdina talde guztientzat, eta beste osagai bat aldagarria, talde bakoitzaren kide kopuruaren arabera, hartarako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeetan izaera orokorrez ezarritako muga barruan eta kopuru hori ezingo da erabili Udalbatzarraren zerbitzuan dauden langileen ordainak ordaintzeko edo ondare izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak erosteko.

#### **19. ter artikulua.**

Atxikirik ez dauden kideek, zinegotzi izaera baitute, udal talde politikoetan dauden gainerako zinegotzien eskubide politiko berberak izango dituzte. Edozelan ere, eskubide horiek ezingo dira izan jatorrizko taldean edo talde bati atxikirik egonez gero egokitu litzaizkiekeenak baino handiagoak.

Zinegotziak edo atxikirik ez dauden kideak Ba-

Los grupos municipales y miembros no adscritos/as podrán hacer uso de los locales municipales para celebrar reuniones o sesiones de trabajo con asociaciones para la defensa de los intereses colectivos, generales o sectoriales, de los vecinos del municipio.

El/la Alcalde/sa o el Concejal responsable del área de régimen interior establecerán el régimen concreto de utilización de los locales municipales por parte de los grupos de la Corporación, teniendo en cuenta la necesaria coordinación funcional y de acuerdo con los niveles de representación política de cada uno de ellos.

No se permitirá este tipo de reuniones coincidiendo con sesiones de Pleno o de la Comisión de Gobierno.

#### **Artículo 19.bis**

